

## **BERDINTASUN-ARLOKO IKERKETA-PROIEKTUA** **2018ko iraila**

**Ahozko, ikusmenezko eta idatzizko hizkuntzaren erabilera, kontsumo-kooperatiba batean Komunikazio Berdinzalea eta Inklusiboa izateko.**

### **Aurkezpena**

EROSKI Koop. E. , kontsumo-kooperatiba moduan, generoaren berdintasun-printzipioa erakunde guztian presente izateaz arduratzen da, hala islatzen baita argi eta garbi gure sortze-estatutuetan. Gainera, Plan Estrategiko honetan Generoaren Berdintasun Ardatza sartu da barne mailan zein kanpo mailan landu beharreko eremu garrantzitsu moduan.

Berdintasun-printzipio hori enpresako politika guztietan praktikatzen dugu, pertsonak, bai langileak zein kontsumitzaileak, gure jardueraren muina baitira. Alde batetik, langileak prestatzen ditugu tratu- eta aukera-berdintasunaren alde egin dezaten, diskriminaziozko harremanak kendu ditzaten eta hizkuntzaren erabilera sexista saihestu dezaten; eta bestetik, beharrezko jarduerak garatzen ditugu, kontsumitzaileen interes legítimoak hobeto sustatzeko eta defendatzeko, aukera-berdintasunean.

Aipatu ikerketa-proiektua martxan jartzeko, EROSKIk Donostiako Zuzenbide Fakultatean kokatzen den Genero Berdintasunerako Masterraren Zuzendaritzarekin jardungo du lankidetzan. Lankidetzeta-esparru horren bidez, aipatu Masterreko irakasle klastroak bekarako hautagai egokien aurretiko hautaketa egingo du.

### **Deialdiaren helburua**

EROSKI Koop. E.-k deialdi hau egin du, zeinaren helburua baita komunikazio eta berdintasunezko hizkuntza gaitan ikerketa-proiektu bat egiteko diru laguntza bat ematea, EROSKI Koop. E.-ko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Planean jasotzen den lankidetzeta-, komunikazio- eta sentsibilizazio-kultura arloaren barruan.

### **Edukia**

Edukiak egungo komunikazio-estiloaren azterketa landuko du. Ikerketaren helburua da barruko eta kanpoko komunikazio-euskarri ezberdietan idatzizko, ahozko eta ikusmenezko hizkuntza berdinzalea eta inklusiboa erabiltzeko irizpideak ezartzea, kultura berdinzalea eta inklusiboa ikusgai jartzen eta normalizatzen ahalbidetzeko eta laguntzeko.

EROSKIk, erakunde kooperatibo moduan, eta komunitateak izan duen gizarte-eraldaketaren printzipioaren ondorioz, genero-berdintasunarekin konpromisoa hartu du, non, hizkuntza erabiltzeko proiektua lan-ildoetako bat izango den, kulturak aurrera egiteko behar dituen kultura-aldaketak aktibatzen lagun dezan.

Ikerketa Proiektuaren helburua da berdintasunaren inguruko eraldaketa linguistikoaren eta kulturalaren proiektu bat egitea proiektzio sozial eta erlazional handia duen erakunde baten barruan, banaketa-enpresa moduan dituen izaera eta ezaugarri bereziak kontuan izanik.

Ondoren, oinarritzko gida moduan erabiliko da azterketa, EROSKIko komunikazioaren eboluzioaren alde (alegia, komunikazio publizitarioko, informatiboko eta korporatiboko eremuen alde, bai azkeneko bezeroen aurrean zein barruko pertsonen aurrean ere), baita Erakundearen harreman-estilo berdinzaleago bat definitzeko tresna moduan ere.

Laguntza emateak ez du lan-kontratu harremanik ezartzen EROSKI Koop. E.-rekin, eta ez da EROSKIren Egoitza Sozialaren bulegoetan gauzatuko. Hala ere, aurretiazko dokumentazioa zehazteko, aztertze eta egiteko, eta ondoren egin beharreko bilerak egiteko, erreferentziazko tokia Elorriko Egoitza Soziala izango da.

Proiektua 2019. urte naturalean egingo da, 6 hilabeteko iraupena izango du, eta ez da berriazko edo isileko luzapenik kontuan hartuko.

Denbora hori igaro ondoren, bekadunak txosten bat entregatuko du bere ikerketa-lanaren edukiarekin eta EROSKI In hizkuntza berdinzaleago bat ezartzeko gomendioekin, eta aldi berean, txosten horrek eremu informatiboetan, publizitarioetan eta korporatiboetan hizkuntza berdinzalea erabiltzeko gomendioak eta gidalerroak jasoko ditu. Aipatu txostenak EROSKI Koop E.-ren berezitasunak oso kontuan hartu beharko ditu, erakunde parekidea eta berdinzalea baita, eta beste erakunde batzuen aldean bereizten duen identitate kooperatibo bat baitu.

### **Aukeraketa, jarraipena eta hornidura ekonomikoa**

Eskaerak 2 hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, oinarri hauek argitaratzen direnetik aurrera (2018ko irailaren 1a).

Epe hori igaro ondoren, hautaketa prozesua hasiko da, eta 20 eguneko epean burutuko da.

EROSKI Koop. E.-ko Berdintasun Behatokiak horretarako sortutako epaimahai batek aztertuko ditu eskaerak, eta epaimahai horrei, eskaera bakoitzaren kalitatea eta bideragarritasuna zein eskatutako aurrekontuarekiko egokitasuna kontuan izanik, aurretiazko hautaketa bat egingo du.

Aurrez aukeratutako hautagaiei elkarrizketa pertsonala egiteko hitzordua emango zaie, behin betiko hautagaia aukeratze aldera.

Elkarrizketak 2018ko azaroan egingo dira.

Prozesua amaitzean, Berdintasunerako Behatokiaren zuzendariak aukeratutako proiektua zein den komunikatuko du ebazpenaren egunetik zenbatzen hasi eta 7 eguneko epean.

EROSKI Koop. E.-k hautatu ez diren proiektuen informazioa suntsitu egingo du, Deialdiaren ebazpen-dataren ondorengo 15 egunetan.

Lehenengo bilera-esparrua EROSKIk Elorrioko Egoitza Sozialean dituen instalazioetan egingo da. Elkargune horretan EROSKIk proiektu horren inguruan dituen premiak eta itxaropenak zehaztuko dira, premiazkoa baderitzo.

Proiektua hasi eta hiru hilabetera, Elorrioko Egoitza Sozialean jarraipen-bilera bat egingo da, proiektuaren aurrerapenak balioesteko.

Hornidura ekonomikoa 3.000 euro gordinekoa da, zeinari legalki dagozkion atxikipenak edota deskontuak ezarriko baitzaizkio.

### **Eskatzaileak**

Laguntza honetan parte hartu ahalko dute unibertsitate-titulazioa egiaztatzen duten, edo kazetaritza, komunikazioa, pedagogia, enpresa-ikasketak, filologia edota Genero Berdintasuneko Masterra edo Berdintasunaren Ikasketen Graduondokoa ikasten ari diren pertsonak edo pertsona-taldeak.

Euskararen ezagutza balioetsiko da, EROSKI bere komunikazioan hizkuntza koofizialen erabilera bultzatzen duen enpresa bat baita. Alde horretatik, proiektuaren barruan elebitasuna ere landu ahalko da.

Taldean aurkeztuz gero, taldeko parte-hartzaile bat izendatu beharko da EROSKI Koop. E.-rekin koordinatzaile-lanak egin ditzan.

### **Eskaera eta dokumentazioa aurkeztea**

Eskaerak honako helbide honetan jasoko dira: [igualdad@eroski.es](mailto:igualdad@eroski.es)

Dokumentazioa entregatzeko data 2018ko irailaren 1etik 2018ko urriaren 31ra arte izango da.

Honako dokumentu hauek erantsiko dira PDF formatuan:

- 1.- Proiektuko pertsonaren/parte-hartzailearen Curriculum Vitaea.**
- 2.- Proiektuko pertsonaren/parte-hartzailearen NANaren fotokopia.**
- 3.- Proiektuaren laburpena, laneko abiapuntuaren hipotesia eta jarraitu beharreko metodologia barne.**

### **Izaera Pertsonaleko Datuak Babestearen inguruko politika**

#### **Tratamenduaren arduraduna**

EROSKI Koop. E.-ko Datuak Babesteko Ordezariaren harremanetarako datuak: [dpo@eroski.es](mailto:dpo@eroski.es)

#### **Zer datu tratatzen ditugu eta zenbat denboran**

EROSKIk honako datu hauek tratatuko ditu:

(i) eskera egitean orokorrean emandako izaera pertsonaleko datuak; identifikagarriak, akademikoak, bere karrerari, ezagutzei, kualitateei, esperientziei, esperientzia profesionalari eta ibilbideari buruzkoak, bereziki ikerketa-proiektua bideratzeko eskatzaileak egokiak deritzon datu guztiak.

EROSKI eskatzaileen eta aukeratuak datuak tratatuko eta biltegitratuko ditu, ikerketa-proiektuaren hautaketa- eta esleipen-prozesuak aktibo jarraitzen duen bitartean, prozesua garatzen den aldia zehar eta eskatzailearen edo aukeratuaren datuen tratamenduarekin lotutako balizko erantzukizunaren ondorioz sor daitezkeen obligazio legalek preskribatzen duten arte.

### **Eskatzaileak edo aukeratuak zer nolako baimenak ematen ditu bere datuak ematen dituenen?**

EROSKI premiazko datuak tratatzen eta biltegitratzen ditu honako helburu hauetarako:

- (i) Ikerketa-proiektuarekin lotutako guztia bideratzeko;
- (ii) eskatzaileei eta aukeratuak tramitazio-prozesuaren zein etorkizuneko antzeko jardueren berri emateko.

### **Eskatzaileak edo aukeratuak nola gauzatu ditzake bere baliogabetze-, sarbide-, ezabapen-, aurkakotasun-, zuzenketa-, mugapen- eta eramangarritasun-eskubideak?**

Eskatzaile edo aukeratu orok bere sarbide-, zuzenketa- eta ezabapen-eskubideak gauzatu ahalko ditu; era berean, bere baimena baliogabetu, tratamenduaren aurka egin, tratamendua mugatu edota bere datuen eramangarritasuna eskatu dezake, helbide honen bidez [dpo@eroski.es](mailto:dpo@eroski.es), Bezeroaren Arretarako Zerbitzuko zenbakira deituz (944 943 444) edo EROSKI Koop. E.-ko datuak babesteko ordezkari-taldeari idatzi bat bidaliz honako helbide honetara San Agustin auzoa z/g – 48230 Elorrio (Bizkaia).

### **Onarpena eta ordainketa-modua**

EROSKI Koop. E.-k Onarpen Akordio bat sinatuko du hautatutako proiektuko pertson(ar)ekin, non alderdi biek onartutako konpromisoa jasoko den ([Ikusi ereduak](#))

Ordainketa transferentzia bidez egingo da zehazten den entitateko kontu korrontean eta Onarpen Akordioan xehatzen diren baldintzen arabera.

### **Azken Xedapenak**

Deialdi honetan aurkezteak bere oinarriak eta ebazpena erabat onartzea dakar, eta hori apelaezina izango da.